



**ibilbide bat Ibardingo
gotorlekuetan barna**

1. Batzarlekuko gotorlekua

Elizalde Bentatik goiti abiatuta, ezkerreko aldean dago Batzarlekuko gotorlekua. Bidean eskuineko aldean utziko dugu Urruñatik Berara zetozen hiru bideetatik bat, zaharrenetako, Batzarlekun barna datorrena. Santsun bidearekin eta Intzolako bidearekin batera, historian zehar bi herri hauek lotzeko erabili izan diren biderik ohikoenak izan dira, egungo errepidea 1881ean eraiki zen arte.




Batzarlekuko gotorlekua, berriz, Konbentzio Gerra (1793-1795) garaikoa da. Konbentzio Gerra deitzen zaio Luix XVI.a gilotinan hil eta gero, Eruopako monarkiek Frantziako Iraultzan sortutako Konbentzioaren aurka egindako gerrari. Frantziako nobleak ihesi joan ziren Espainia aldera, eta Ibardineko eremuan jarri ziren, Espainiako erregearen babes bila. Horregatik, Batzarlekuko gotorlekua iparraldera begira egina dago.

Batzarlekuko gotorlekua zegoen eremu horretan bertan dago 11. mugarria. Antzinako mugarria da, 1787koa, eta R bat ageri da bertan, bi erresuma banatzen zituela adierazten duena (Frantzia erresuma zen garaikoa).

2. Manddaleko nekropolia

7 harrespil edo mairu-baratza (cromlech) biltzen dira bertan. 1952an Joxe Migel Barandiaranek topatu eta aztertu zituen lehen bostak. Hurrengo biak 1968an topatu ziren. Kuartzita zuriz eginak dira, eta k.a. 2000-3000 urte artekoak dira. Mendingo hildako artzainen errautsak lurperatzen zituzten bertan, harrespiletako bakoitzean pertsona bakarrarenak. Hildakoa erre ondotik, kutxa batean sartzen zituzten errautsak, eta lur eman.





3. Telegrafoa

Eguno 9. mugarran kokatua zegoen (bigarren belaunaldiko mugarrria da, 1858an mugak ezarri zirenekoak). 1813ko urriaren 7 eta 9 artean, tropa aliatuek Bidasoako guda egin zuten, frantziar tropen kontra. Manddale izan zen guda horretako gune nagusia, eta toki hau erabili zuten




frantsesek ikus-seinaleak bidaltzeko, telegrafoa deitzen ziotena. Leku estrategikoa zen, bertatik inguruko herri eta mendiak ikusten ahal zirelako. Tropa aliatuak Biriatur barna Manddaleran sartu ziren, 2. erasoaldia egin zuten Beratik.

4. Lubakiak

1813ko guda horietarako egindako lubakiak ikus daitezke Manddalen. Lubakia zirkularra da, eta 9. mugarriaren inguruan dago. Itxura poligonala du, guztiz irregularra da, eta mendaren maldetara egokitua dago. Guztira 350 metroko lubakia da, 7 metroko zabalera duena, batzuetan bertze, eta 1,5-2 m. arteko sakonera.


Inguruan zegoen bentari "Hirumugarrietako benta" deitzen zioten Urruñarrek, Bera, Urruña eta Biriatu arteko muga delako.



5. Emigratuen kanpalekua

1793an San Simon markesaren tropak, Frantziatik ihesi, bertan ezarri zuten euren kaxerna, egun 16. mugarria dagoen eremuan. Kaxernak 50x8 m izango zituen. Hainbat begiratoki ere bazituen, eta horietako bat, oraindik, zutik dago, Oleta aldera begira dagoena. Lurrean ere oraindik ikus daitezke harrizko bide baten arrastoak. Bide honek 500 metroko luzera zuen, eta kainoiak garraiatzeko erabiltzen zen.

Frantziako errege izandako Luis XVI.aren lehengusua zenez Carlos IV Espainiako erregea, honen babesera etorri ziren Frantziako hainbat noble, emigratuz. Hortik datorkio izena kanpaleku honi.





6. Erentzungo gotorlekua

Bere jatorria zein den argi ez badago ere, Konbentzio Gerra baino anitzez lehenagokoa dela pentsatzen da. Bertan topatu izan dira, bertzeren artean, erromatar garaiko eta Isabel Katolikoaren garaiko txanponak.

Bertze gotorlekuekin alderatuta, sinpletasuna eta formen erregulartasuna nabarmentzekoak dira. Iparraldeko aldean plataforma laukizuzena du, 54x43 m.koa. Hegoaldean, berriz, hiru gotorleku ditu, hegoaldea, ekialdea eta mendebaldea babesten dituenak.




Sarrera hegoaldean dago, mendebaldeko gotorlekuaren ondoan. Barreneko aldean, eraikin luze baten zimentuak (32 x 12 m.) antzeman daitezke. Seguruenera ere, kaxerna izango zen honakoa.

Kanpoko aldean fosa bat du, 9 eta 10 m. zabalera artean dagoena, eta 3 m.ko sakonerara iristen dena.

Inguru honetan ia ez da balarik topatu, eta

horrek adieraz dezake ez dela aparteko gudatokia izan. Borroka aldiak beheitiago eman zirela pentsa genezake.

Ibardinera bidean, mairu-harri edo triku-harri baten arrastoa ikus dezakegu. K.a. 4000-2000 urte artekoa izan daiteke. Hildako artzainak osorik sartzen zituzten, eta hilobi bakoitzean hildako bat baino gehiago lurperatu zezaketen. Gaineko harria falta du.



7. San Benito gotorlekua

Oharra: gotorleku hau ez genuen lehengo eguneko bisitan ikusi. Berako Udalean ez dugu honen berririk, eta toponimo hori ez da batere ezaguna gurean (bada izen bereko meategi bat Beran). Posta inguruan behar du. Bilatzen jarraituko dugu. Hemen eman diguten informazioa:

300 m.ko garaieran dago, ordoki batean. Gaur egun, nagusiki, pinadi baten barrenean dago ia osorik, baina erraza da formak bereizten, oso ongi mantendu delako gaur egun arte.

Sei puntako izar forma du gotorlekuak, pixka bat okertua. Kanpoko fosa 2 m.ko sakonera du eta 3 eta 5 m. arteko zabalera. Lurrezko parapeto batek bereizten du gotorlekuaren kanpoko aldea. Sarrerarik errazena mendebaldetik da, maldarik ttikiena bertan baitu. Bere ardatzak 60 metro inguru ditu.

Gerra napoleonikoetan eginkizun militar handia izan zuen, tropa frantziarrentzat leku aitzindaria baitzen. Iparraldera 1 kmra dagoen Manddaleko gotorlekuarekin trintxeren bidez lotura zuen. Bidasoako eta Ugaranako gudaldietan borrokaldi latzak izan ziren bertan, 1813ko urria eta azaroa artean.

